

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3439

543/2024 EBAZPENA, uztailaren 2koa, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez M.^a Nieves Pascual Fernández andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko Etxeko ospitalizazioko Atal Sanitarioko Buru, aldi baterako, lau urte luzagarritz.

Bidasoko ESiko zuzendari-gerentearen urtarrilaren 23ko 102/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bidasoko ESiko Etxeko ospitalizazioko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko otsailaren 8ko EHAA, 29. zk. eta 2024ko otsailaren 15eko BOE, 40. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, M.^a Nieves Pascual Fernández andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko ESiko Etxeko ospitalizazioko Atal Sanitarioko Buru.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– M.^a Nieves Pascual Fernández andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko ESiko Etxeko ospitalizazioko Atal Sanitarioko Buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ez baldin bada jazozen luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat, eta betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hondarribia, 2024ko uztailaren 2a.

Bidasoko ESiko zuzendari-gerentea,
MARIA LUISA MERINO HERNÁNDEZ.